

Asisko gutuna

2021eko maiatza

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

151. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunaren sare sozial irekia da.

Ziren eta zeukatena eman duten pertsona eskuzabal asko gehiago ematerik ezin duten puntura iristen dira. Arrazoiei buruz galdetuz gero, laguntzeaz nekatu direla erantzuten dute. Ez dira salbuespeneko kasuak, guztioi iristen baitzaigu nekearen ordua, eskuzabalak izan arren.

Gogoetarako gaia

Laguntzeaz nekatuta

Denbora bat besteei laguntzen eman ondoren, beharrean daudenekin solidario izatera bultzatu zuten arrazoiak lausotu egin zaizkiola konturatzten den unea iristen zaio bati. Bat ahitu egiten da eta esaten du: "Nekatuta nago laguntzeaz". Arrazoi asko dago horretara iristeko: mundu zuzenago baten alde edo behartsuen bizitza eramangarriagoa egiteko haserako idealismoak joan egin dira, jada ez dit ezer berririk ekartzen hainbeste denbora eta energia inbertitzeak besteei laguntzen, bizitza aurrera doa eta norbere buruaz gehiago kezkatzen hasteko garaia da, ez da ikusten ezer lortzen denik lagun hurkoaren alde egingdako lan guztiarekin...

Normala da besteen aldeko egiten ari garen lana eta entrega zalantzan jartzeko ordua iristea. Baina hondoa jotzera eramaten gaituena ez da nekea bakarrik, baizik eta jada ez dugula aurkitzen non oinarritu orain arte egiten ari garenarekin jarraitzeko; ahitu egin gara, emateko erabiltzen ziren

barne arrazoiak desagertu direlako: proiektuak amets hutsak bihurtu dira, hasieran eskuzabalatasuna zirudienak esperientzia berrietarako interes hutsa zuela egiaztatu da, pertsona lagunduak ez dira iristen beraiantzat nahi ziren bizi baldintzetara...

Nekearen aurrean, oro har, atsedean hartzeko tartea hartuz erantzuten da, edo berriro adoretzeko eta ekimenera itzultzeko arrazoiak indartuz. Pertsona askok norabidea aldatzen dute bizitzan eta elkartasunerako denbora bukatutzat ematen. Eta pertsona batzuek elkartasunerako arrazoi berriak aurkitzen dituzte, ekimenera eraman zituen horretan sakonduz. Agian, elkartasunerako funtsa ez dago norberaren baitan, ez egiten duen lanean, ezta beste garai batzuetan motibatu zuten idealetan ere, baizik eta besteen alde lan eginez, edozein modutan delarik, bere bizitza osoa bizi-rik mantentzen duen maitasunari erantzuten diotenean. Jainkoa da lana hori eusten duena.

Bibliako pasarteak: Gal 6,1-4.9

Senideok, norbait hutsegiteren batean aurkituko bazenute, zuek, Espiritua duzuenok, saia zaitezte halakoa gozotasunez zentzarazten. Eta egon erne, zeu ere tentatua izan zaitezke eta. Lagundu bata besteari elkarren zamak eramaten, horrela beteko baituzue Kristoren legea. Norbait zerbait delakoan badago, ezer ez delarik, bere burua engainatzen du. Azter beza nork bere jokaera eta, horrela, bereaz harrotu ahal izango da, baina besteekin konparatzen ibili gabe... Ez gaitezten, beraz, aspertu on egiten, zeren, etsitzen ez badugu, jasoko baitugu uzta bere garaian.

Frantziskotar espiritualtasuna

Anai ministroari: *Jaunak bedeinka zaitzala*. Zeure kontzientzi arazoaz, haxe esaten dizut ahal dudan ongien: Jainko Jauna maitatzea eragozten dizun edozer gauza eta horretarako oztopo jartzen dizun edonor, anaia edo beste, dena graziatzat hartu behar duzu, baita jipoituko bazintuzte ere. Eta horixe nahi ezazu, ez besterik. Eta har ezazu hori Jainko Jaunarekiko eta nirekiko egiazko obedientziatzat, ziur baitakit, jakin, horixe dela egiazko obedientzia.

Eta maita itzazu gauza horiek egiten dizkizutenak. Eta horiengandik ez nahi izan besterik ezer, Jaunak emango dizuna baino. Malta itzazu horretantxe, eta ez nahi izan horiek kristau hobeak izaterik. Eta izan bedi hori zuretzat eremitorioan bizitzea baino hobe.

Honako honetan ezagutu nahi dut Jauna maite duzula eta baita ni ere, haren eta zure morroi hau, honela jokatzeko baduzu, alegia: ez dadila izan munduan anaiarik, daitekeen bekatu gehien egin balu ere, zure begiak ikusi ondoren, inoiz zure errukirik gabe alde egingo duenik, errukia eskatuko balu. (MiG 1-9).

Otoitza

Jesus, zugana joateko gonbita egiten diguzu,
guri, nekatuoi eta larrituoi,
eta apaltasunaren eta bihotz xalotasunaren beharra
erakusten diguzu.

Horregatik eskatzen dizugu...

Irakatsi diezaguzula

zurekin eta ingurukoekin harremanetan jartzen,
sinpletasunez eta umiltasunez...

Erakus diezaguzula zure uztarria onartzen
mundu honetara egokitu ez gaitezen...

Gu Zuri lotuak egotea aihena mahatsondoari bezala
guk Zuri entzunez eta Zuk gu gidatzen utziz.

Zurekin topo egiten jakin dezagula

gure ezinegonak elkarrekin partekatzeko,

kezkak, etsipenak, larritasunak, ikarak, beldurrak

eta baita gure pozak, itxaropenak eta desira onak ere.

Eman diezazkiguzula umiltasuna eta beharrezko bihotz-soiltasuna

zure maitasunaz eta konfiantzaz gu betetzen jakin dezagun.

Eralda dezazula gure bihotz berekoi eta uzkurra

bihotz zabal eta esker onekoan.

Gutuneko azken hitzak

"Ez diezazula nekeak axola, zure indarra zure maitasunaren tamainakoa izango baita" (anonimoa).

2021eko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Jn 14,7-14	8 Jn 15,18-21	15 Jn 16,23b-28	22 Jn 21,20-25	29. Mk 11,27-33
2. Jn 15,1-8	9 Jn 15,9-17	16 Mk 16,15-20	23 Jn 20,19-23	30. Mt 28,16-20
3 Jn 14,6-14	10 Jn 15,26-16,4a	17 Jn 16,29-33	24 Jn 19,25-34	31. Lk 1,39-56
4 Jn 14,27-31a	11 Jn 16,5-11	18 Jn 17,1-11a	25 Mk 10,28-31	
5 Jn 15,1-8	12. Jn 16,12-15	19 Jn 17,11b-19	26. Mk 10,32-45	
6 Jn 15,9-11	13 Jn 16,16-20	20 Jn 17,20-26	27. Mk 14,12a.22-25	
7 Jn 15,12-17	14 Jn 15,9-17	21 Jn 21,15-19	28. Mk 11,11-26	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Maiatzeko otoitza
hilaren 27ean izango da.